



“TORIBIO ECHEVARRIA” 33. SARIAK

ENPRESA PLANA (HAUTAZKO EREDUA)

Sarrera

Sariketa honetan parte hartzeko interesa duten enpresek proiektuari dagokion enpresa-plan oso bat aurkeztu beharko dute, bai eta “Laburpen” bat ere, gehienez orrialde bikoia, proiektuari buruzko alderdirik nabarmenenak islatuko dituena.

Jarraian, orientazio modura bada ere, horrelako enpresa-planetan azaldu ohi diren atal eta edukiak zerrendatu dira, baina berrikuntza teknologikoari eta enpresari buruz honen antzeko edukiak dituzten beste enpresa-plan batzuk ere onartuko dira.

Interesgarria da enpresak bere jardueraren laburpen-orri bat eranstea, saria emango duen epaimahaiak aurkeztutako ekimena testuinguru batean kokatu ahal izateko.

Aurkibidea

- 0.- Egikaritza laburpena
- 1.- Produktua/Zerbitzuak
- 2.- Ingurunea
- 3.- Merkatua
- 4.- "Produktua-Merkatua Parearen" definizioa
- 5.- Helburuak eta Estrategia
- 6.- Merkaturatzea
- 7.- Erosketak-Ekoizpena-Biltegiatzea-Igorpenak
- 8.- Antolaketa eta Egitura
- 9.- Inbertsio-Plana
- 10.- Ekonomiko-Finantzario Plana
- 11.- Sintesia eta Ondorio orokorrak

"Enpresa Planaren" eredia ETEentzat

0.- Egikaritzea laburpena

Laburpen honek gehienez ere orri bi izan behar ditu eta "Enpresaren sorrera eta berrikuntza teknologikoaren" alderdiak azpimarratu beharko ditu.

1.- Produktua/Zerbitzuak

- Produktuaren deskribapen zehatza
 - * Deskribapen fisikoa
 - * Ezaugarri teknikoak
 - * Funtzionamendua
 - * Erabilera edo erabilgarritasuna (zer beharri erantzuten dio?)
- Produktuari zer beste erabilera ematen zaio?
- Egungo egoera eta bilakaera-perspektibak
- Proiektuaren xede den produktuaren esparruko teknologia
- Merkaturatu behar den produktuaren eta merkatuan gaur egun dauden horren antzeko beste produktuen artean konparazio-ikerketa bat egitea:
 - * Kualitatiboki (alde onak eta alde txarrak)
 - * Bezero izan daitezkeen beharrekiko
 - *Eboluzio-ikuspegiarekin (moldagarritasuna, hobetzeko aukerak eta abar), eta produktuak izan dezakeen bizitza-iraupena.
- Beharrezkoa izango balitz, lizentziak ustiatzeko kontratuen baliotasuna, bai eta/edo "Know-howarena" eta babes juridikoarena (patenteak) ere.
- Aurrerapenaren buru jarraitzeko xedez aurreikusi beharreko ikerketa- eta garapen-kostuen eta -ahaleginen ebaluazioa.
- Kostu-prezioa:
 - * Kostu-prezioaren behin-behineko zehaztapena
 - * Honako faktore hauek kostu-prezioan duten eragina:

- * Lehengaiek eta/edo eskuratu beharreko piezek
- * Azpikontratazkoak
- * Soldatek eta lansariek
- * Amortizazioek, finantza-kargek, egozpenek, gastu orokorrek
- Produktua zenbateraino egokitzen den orain eta etorkizunean balizko eskaera horretara zehaztea, gaur egun dagoen eta etorkizunean izango den lehia kontuan izanik.
- Enpresa berriak produktuarekiko duen zaurgarritasun-maila zehaztea.

2.- Ingurunea

- Inguruneko faktoreak, negozioen eta aukeretan norabidean eragiteko gaitasuna izan dezaketenak (araudiak, sektoreko legeekin lotutako faktoreak eta abar)
- Inguruneko faktoreekin lotutako zaurgarritasun-maila

3.- Merkatua

- Merkatu globala edo osoa zehaztea (metageografikoa kontuan hartuta) bolumen eta balio aldetik, beharren eta eskaera potentzialaren banaketa bezero-motaka egiten dela.
- Ezarritako prezioen bai eta/edo eskura daitezkeen maila zehaztea produktuen ezaugarrien arabera.
- Dagoen lehiaren eta egon daitekeenaren azterketa
 - * Ekintza-eremua
 - * Merkatu-zatiak
 - * Merkataritza-politika, sustapenerako salmenta-teknikak
 - * Prezioen politika

- Guztizko merkatuaren edo merkatu globalaren bilakaera eta intzidentziak
 - * Beharren eta eskaeraren bilakaera (kalitate eta kantitate aldetik)
 - * Merkatuaren bezero-mota
 - * Eskaerari buruzko beste puntu garrantzitsu batzuk
 - * Urtarokotasuna
 - * Derrigorrezko banaketa-mota
 - * Kontsumitzaileen funtsezko motibazioak
- Eskaintzaren bilakaera (kalitate eta kantitate aldetik)
 - * Eskaintzaren ezaugarri orokorrak
 - * 2 edo 3 lehiakide nagusi
 - * Tamaina
 - * Salmenta-kopurua
 - * Merkatu-kuota
 - * Produktuen ezaugarriak
- Intzidentziak merkataritza-jardunetan eta prezio-mailetan
- Enpresa berriarendako arriskuen ebaluazioa, merkatuaren eta lehiaren bilakaeraren arabera.

4.- "Produktua-Merkatua Parearen" definizioa

5.- Helburuak eta Estrategia

- Enpresaren filosofia orokorra definitzea.
- Bost urterako helburu orokorrak eta politika eta helburu horiek lortzeko zenbait alternatiba aztertu ondoren aplikatu beharreko estrategia orokorrak zehaztea.

6.- Merkaturatzea

- Enpresa berriaren merkaturatze-estrategia eta -politika
- Prezio-politika
 - * Produktuen prezio-maila
 - * Lehiakideekiko zer egoeratan dagoen
- 3 urterako helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak
 - * Merkatu-zatia, bolumen eta balio aldetik
 - * Diru-sarreraren aurreikuspena bezero-motaren arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, baita eskualdearen arabera ere.
- Salmenta-teknikak, salmentaren antolaketa, esku-diru propioak (kantitatea, kalitatea), banaketa-bideak, aurrekontuak.
- Publizitatea, sustapena, harreman publikoak, estrategiak eta aurrekontuak
- Enpresa berrirako arriskuen ebaluazioa erabakitako merkataritza-estrategia zehatzen eta merkataritza-politikaren nahiz erabilgarri dauden aurrekontuen arabera; betiere, lehiakideengandik espero daitezkeen erantzunak eta haien bitartekoak kontuan hartuta.

7.- Erosketak-Ekoizpena-Biltegiatzea- Igorpenak

- Erosketa-politika (azpikontratazkoa barne), erosketa-funtzioaren antolaketa (hornigaien harrera eta kalitate-kontrola barne), aurrekontua.
 - * Erosketen proportzioa salmenta-zifretan.
 - * Hornitzaile-kopurua, haien izenak eta hornitzaile garrantzizkoenen pisu erlatiboa (erosketa guztien %).
 - * Jardueraren azpikontratazkoan duten zatia zehaztea, bai eta zati horren ehunekoaren bilakaera ere.
 - * Azpikontrataturako lan-mota. Zergatik?
 - * Hornitzaileen eta azpikontrataturakoen ordainketa-baldintzak

- Lokalak/tailerrak, ekipoak, ekoizpen-teknikak, ekoizpenaren antolaketa eta kontrola (sekuentziak, ordenamendua, erritmoak, denborak, etekinen kontrola eta kalitatearena, planifikazioa eta abar), aurrekontua.
- Hornigaiak biltegitatzeko eta kudeatzeko sistema, aurrekontua.
- Igorpen teknikak eta igorpen zerbitzua, aurrekontua.
- Mantentze-aurrekontua (barne-mantentzearen zerbitzuarekin edo zerbitzurik gabe)
- 3 urterako behin-behineko kostu-prezioa, merkataritza-helburuetan oinarrituta
- Enpresako ekoizpenari atxikitako arriskuen ebaluazioa egingo da, oro har.

8.- Antolaketa eta Egitura

- Organigrama/langileak, zerbitzuka
- Lanen eta arduren definizioa, bai eta eginkizun bakoitzaren arduradunaren profilarena ere.
- Ahalmenak

9.- Inbertsio-Plana

- Inbertsioak, aktibo finko materialetan
- Makineria
- Instalazioak
- Pabiloiak
- Tresneria
- Garraio-elementuak
- Inbertsioak, aktibo inmaterialetan

10.-Ekonomiko-Finantzario Plana

- Hiru urterako salmenten aurreikuspena
- Hiru urterako aurreikusitako ustiapen-kontua
- Finantza-etekinak eta -bitartekoak:
- Beharrezko funtzionamendu-funtsak eta funts propioak
- Inbertsio-kredituak eta funtzionamendu-kredituak (epe motzera eta luzera)
- Errentagarritasun-atalasea zehaztea
- Diruzaintza-aurrekontuak
- Finantza-arriskuak
- Diruzaintzako zaugarritasun-indizea
- Finantza-etekineko zaugarritasun-indizea
- Hiru urterako aurreikusitako balantzeak

11.-Sintesia eta Ondorio Orokorrak

- Arrakastaren faktore giltzarriak
- Faktore giltzarri horiekiko indarguneak eta ahuleziak
- Ekintza orokorreko planak